

## Automobil Lehiaketan Espezializazio Teknikoa Masterreko II. Promoziak jaso ditu diplomak

2007/05/24

**Automobil Lehiaketan Espezializazio Teknikoa Masterreko/METCAko, Epsilon Euskadirekin** lankidetzan antolatua, II. promozioako 22 ikasleri diplomak eman dizkie **Mondragon Unibertsitateak**. Diploma-banaketen ekitaldi ofizialean –Azkoitian Epsilonek duen **Errendimendu Handiko Zentroan** egina– Rally lehiaketan bi aldiz munduko garaile izan den **Carlos Sainzek**, Mondragon Unibertsitateko Errektore **Iosu Zabalak** eta Epsilon Euskadiko Lehendakari **Joan Villadelpratek** hartu dute parte.

Masterra, ezaugarri horiek dituen bakarra bai Estatuan bai Europan, erreferente bihurtu da Europan. Urtero automobil lehiaketan espezializatu nahi duten hogei ingeniari inguru prestatzera zuzendurik dago. Mondragon Unibertsitateko irakasleek, eta lehiaketaren alorreko eta irakaskuntzako nazioarteko adituek ematen dute masterra, Epsilon Euskadik Azkoitian duen Automobilgintza Teknologia Errendimendu Handiko Zentroan. Ikastaroak eduki praktikoa garrantzitsua du, izan ere, lehiaketan zehar ikasleek zirkuituetara joateko aukera izaten baitute.

Ikasleei diziplina anitzeko prestakuntza eskaintzea du helburu **METCAk**, honako alor hauetan guztiz gai izan daitezen: aerodinamikan, ibilgailuaren dinamikan, moto propulstzaileen multzoan, programazioan eta lehiaketako taldeen kudeaketan, besteak beste. Behin ikastaroa amaituta, automobilgintza-industrian lan egiteko edo lehiaketako talde bateko partaide izateko ezagutza teorikoak eta praktikokoak izango dituzte ikasleek. Horretarako, ibilgailua osatzen duten modulu nagusien funtzio eta elementu garrantzitsuenen gaineko ezagutza osoa eskainiko du masterrak, amaitzean ikasleak modulu osoak diseinatzeko eta garatzeko gai izan daitezen.

Ingeniaritzako tituludunei, automobilgintzaren inguruko teknologia elektronikoetan eta mekanikoetan espezializaturiko ikertzaileei eta alorreko profesionalei zuzendurik dago ikastaroa.

